



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko azaroaren 6a

25. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, jakiteko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak zer urrats egin dituen zenbait enpresatan sortu diren krisi eta ixte egoerei dagokienez, hala nola Solano, Onena, Sysmo, Alco, Maier, Inquinasa eta abarretan buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Foru Komunitateko administrazioari atxikitako ondasun higiezin eta guneak arrazionalizatzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin handiagoa egin dezan enpresen jarduera arduragabeak, modu justifikatu gabean krisi egoerak ahalbidetzen dituztenak, eragozteko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala konpon ditzan "Pedro de Ursúa" institutu publikoan, ikasturte honetarako atondutako lehen fasean, dauden arazoak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroari ezarritako eginkizunari buruzkoa. Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruña eta Luzaide arteko errepidea bikoizteko proiektua garatzeko, denboraren ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomikotik, dauzkan aurreikuspeni buruzkoa. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioari buruzkoa. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (11. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2007ko irailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2007ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, jakiteko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak zer urrats egin dituen zenbait enpresatan sortu diren krisi eta ixte egoerei dagokienez, hala nola Solano, Onena, Sysmo, Alco, Maier, Inquinasa eta abarretan.**

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkezturiko jabeldura, jakiteko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak zer urrats egin dituen zenbait enpresatan sortu diren krisi eta ixte egoerei dagokienez, hala nola Solano, Onena, Sysmo, Alco, Maier, Inquinasa eta abarretan.

**2.** Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

**JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Anjel Aguirrebengoa Imaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua-ren eta hurrengo babesean, honako jabeldura

hau aurkeztu dio Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Uneotan, etengabeak dira enpresa-batzordeen agerraldiak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean. Enpresa batzordeak etorri dira azalpenak ematera dituzten krisi egoera, enplegu-erregulazioko espediente eta enpresa-itxierei buruz, hamabi ere izanzen baitira itxitako enpresak –Solano, Onena, Sysmo, Alco, Maier, Inquinasa...– eta 1.000 inguru kaltetutako langileak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako jabeldura aurkeztu du:

Jakin nahi dugu zer urrats egin duen Departamentuak Nafarroako enpresen krisiok konpontzen saiatzeko eta azken urteotan nola aplikatu diren krisian dauden enpresak onbideratu eta berrabiatzeko gaur egungo laguntzak. Era berean, jakin nahi dugu zer iritzi duen kontseilari jaunak gaur egungo laguntzei buruz, eta asmorik al duen horietan aldaketarik egiteko eta zer aldaketa liratekeen horiek.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan.**

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzkoa.

Zioen azalpena:

Egunean-egunean nabarmenagoa da tokian tokiko gobernuek duten zeregina gizarte demokratikoetan. Izan ere, gero eta konpromiso eta inplikazio handiagoa dute zenbait arlotako politiketan: eskubideak eta askatasunak, elkartasuna eta berdintasuna, ekonomia- eta lurralde-garapena, jarduera- eta enplegu-sorkuntza, zenbait zerbitzu publiko –osasuna, hezkuntza edo gizarte-ongizatea–, mugikortasun arazoak konpontzea ingurumenarekiko konpromisoa. Hori horrela, bidea ematen dute herritarrak gizalegezko balioetan hezteko, eta horrek, era berean, tradizioak berreskuratzea faboratzen du, eta kultura herrikoia sustatzea.

Nafarroak egoera konplexua du eta konponbide zailekoa, entitate askok osatzen baitute udalen

egitura administratiboa, eta horietako gehienek ez baitute kudeaketa-gaitasun nahikorik, ezta finantza-nahikotasunik ere herritarrek gaur egun egiten dituzten eskaerak asetzeko. Udal maparen konplexutasunak, gainera, administrazioen arteko nolabaiteko nahastea sortzen du zenbait zerbitzu abian jartzerakoan: gizarte-zerbitzuak, osasun-sistemakoak, kirol arlokoak, kulturalak edo bestelakoak. Administrazioak, batzuetan, mankomunitateetan elkartzen dira zerbitzu horiek emateko, eta beste batzuetan, berriz, ez; batzuetan udal batzuekin elkartzen dira, beste batzuetan beste batzuekin; horrek osotasuna berrikusteko beharra areagotzen du.

Finantza- eta egitura-arazo horiei eman nahi zaien konponbidea edozein dela ere, ez da egiten, ia seguru, toki entitateak bateratuz edo desagerraraziz; beraz, aukera batzuk eman beharko dira, eta horiek zehazteko abiapuntua izanen da kontu handiz bereiztea ordezkaritza eta parte-hartze politikoa, batetik, eta zerbitzu publikoen kudeaketa, bestetik.

Herritarrek toki kudeaketa ona behar dute eta exijitzen dute, eraginkorra izanen dena, eta zerbitzu on batzuk, non bizi diren gorabehera, eta, horretarako, nahitaez, entitate indartsuak behar dira, dituzten eskumenak kudeatzeko gaitasuna dutenak, eta ez, ordea, toki entitateek modu gutxi gorabehera kontzientean eskuratzea berez ez dagozkien eskumenak, ekonomia- eta finantzaketarazo ugari eragiten baitute.

Toki administrazioak, herritarrarengandik hurbilen dagoen administrazioa denez gero, indartu egin behar du ordezkaritza eta parte-hartze demokratikorako oinarrizko bidea izatearen eginkizuna, indartu bere eginkizun exekutiboa, pertsonentzako zerbitzuak ematen dituen eta kudeatzen dituen entitatea baita, eta aberastasuna eta lana sortuko dituen jardun ekonomikoa bultzatzeko duen eginkizuna ere indartu.

Toki administrazioaren egitura politikoak, antolamendukoak bereziki, gaur egungo lurralde-ereduaren arabera behar du izan, eta eredu horrek etorkizunean izanen duen proiektioaren arabera. Nafarroan ditugun figura administratibo ugariak Nafarroaren lurralde aniztasunera egokitzeko izpiritua dute sorburu, eta tradizioak ere bai, eta hori dena ere inspirazio iturri izan behar

dugu hizpide ditugun etorkizuneko aukera horiek zehaztean.

Azken urteotan, egoera hori eztabaidagai izan da; hala ere, UPNren hurrenez hurreneko gobernuak ez diote gaiari heldu konpontzeko asmo garbiarekin, eta denbora pasatzen utzi dute, eztabaida sakon eta zorrotzari bide emanen zien proposamen serioerik egin gabe.

Horretaz gain, azken urteotan, ekonomiak gehiago ireki eta globalizatu diren honetan, zirkunstantzia berriak sortu dira eremu nazionalen eta autonomietan, eta horrek beharrezkoa egiten du guk ere munizipalismoa errebindikatzea gure gizartean.

Behar horiek ikusita, uneotan, non edozein proposamen lasaitasun osoz azter baitaiteke legegintzaldiaren hasieran gaudelako, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozka dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proposamen zehatz bat aurkez dezan hiru hilabeteko epean, proposamen hori eztabaidatu ahal izan dezaten Nafarroako Parlamentuko talde politiko guztiek, toki entitate guztiek eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, toki administrazio modernoagoa eta eraginkorra goa helburu.

Proposamen horrek, besteak beste, honakoak aipatu beharko ditu:

a) Udal mapa administratiboaren balizko berrantolamendua, halako moduz non toki entitate indartsuak eta kudeaketa gaitasuna duten ahalbidetuko diren, nahitaez udalen edo kontzejuen bategitea ekarriko ez duten figurak sustatuz, eta, beraz, era horretan, orain duten ordezkari politikoari eutsiko dioten, non eta, beren borondatez, ez duten espresuki kontrakoa adierazten.

b) Bakoitzaren eskumenen katalogoak ezartzea, gizarte zuzenago bat ahalbidetzeko eta herri-tarren bizi kalitatea hobetzeko.

c) Finantzaketa sistema gaurkotu bat ezartzea, oinarri izanen dituen aipaturako berrantolamendua eta toki entitateek kudeatu beharko dituzten eskumenak. Toki ogasunen funtsaren banaketa bidezkoa ahalbidetuko duten formulak xedatu beharko dira, toki autonomia errespetatuz eta, betiere, "elkartasun-zorro" bat sortuz, udal txiki-nei edo ahalmen gutxiago dituztenei beren zerbitzuak baldintza-berdintasunean ematea ahalbidetuko diena.

Iruñean, 2007ko urriaren 22an.

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Foru Komunitateko administrazioari atxikitako ondasun higiezin eta guneak arrazionalizatzeko.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Foru Komunitateko administrazioari atxikitako ondasun higiezin eta guneak arrazionalizatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarren

hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan estrategiko bat presta dezan Foru Komunitateko administrazioari atxikitako ondasun higiezin eta guneak arrazionalizatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak eraikin askotan barreiatuak daude; higiezin horietako batzuk Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren jabetzakoak dira eta beste batzuk, berriz, jabetza pribatukoak.

Zerbitzuak zentralizatzeari buruzko inbertsioen gaineko informazioen arabera, inbertsio horiek garrantzitsuak direnez, eta baliabideak errentagarririk bihurtzeko beharra begi-bistakoa denez,

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean plan estrategiko bat presta dezan, dituen espazio publikoak, dela bereak dela errentan hartuak, arrazionalizatzeko, berrantolatzeko eta daudenak berriro esleitzeko, halako moduz non ez dadin inbertsiorik egin jakin gabe zer zerbitzuek behar duten edo beharko duten halakorik, jakin gabe zer egoeratan dauden batzuk eta besteak, langile publiko batzuk eta besteak, kostu batzuk eta besteak.

Iruñean, 2007ko urriaren 24an.

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin handiagoa egin dezan enpresen jarduera arduragabeak, modu justifikatu gabean krisi egoerak ahalbidetzen dituztenak, eragozteko.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin handiagoa egin dezan enpresen jarduera arduragabeak, modu justifikatu gabean krisi egoerak ahalbidetzen dituztenak, eragozteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu diote Nafarroako Parlamentuko

Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Gure erkidegoaren egoera industrialean enpresa ugariaren krisialdiaren ondorioak nabaritzen ari dira. Izan ere, enpresa horiek enplegu-erregulazio-ko espedienteak aurkezten ari dira, langile askorengan eragina dutenak.

Egoera horren jatorria dira enpresen portaerarekin zerikusia daukaten zenbait ekintza, enpresek lehentasuna ematen baitiete deslokalizazioari, kostu-murrizketari, laneko behin-behinekotasunari edo gehiegizko etekinei, bigarren maila batean utzirik enpresa-proiektu sendoak, egonkorak eta konpromisoei lotuak.

Hori bezain kezagarria da Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez betetako zeregina. Jardun horrek ahalbidetu du titulartasuna izatea proiekturik gabeko enpresarientzat, enpresa horietarako bideragarritasun-azterlanak ez betetzea edo hasieratik bertatik enpresa horien desagerpena bilatzen zuten helburuak ezartzea, enpresen jarduerari eta bertako langile-plantillei eusteko inolako borondaterik gabe.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen du krisia pairatzen ari diren eta horregatik gure erkidegoko sektore handietan egonezina eragiten ari diren enpresa ugariengatik.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna agertu nahi die langileei eta haien familiartekoei, beren nahiarekin inolako zerikusirik ez duten arazoengatik ikusten ari baitira nola arriskuan ipini diren beren oreka, bizi-proiektua eta etorkizuna.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalegin handiagoa egin dezan horrelako krisi egoerak justifikaziorik gabe ahalbidetzen dituzten enpresen jarduera arduragabeak eragozteko.

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala konpon ditzan "Pedro de Ursúa" institutu publikoan, ikasturte honetarako atondutako lehen fasean, dauden arazoak.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala konpon ditzan "Pedro de Ursúa" institutu publikoan, ikasturte honetarako atondutako lehen fasean, dauden arazoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

Urriaren 19an, gure parlamentu-taldearen ekimenez, Legebiltzar honetako Hezkuntza Batzor-

deak bisita egin zuen Mendillorriko "Pedro de Ursua" institutu publikora. Bisita horren helburua zen, alde batetik, ikastetxe horren egoera orokorra ikuskatzea, eta bestetik, bilera bat egitea zuzendaritza-taldearekin, gurasoen elkartearekin eta irakasle ez diren langileekin, informazioa lortzeko.

Egiaztatu ahal izan genuenez, lehen fase horretan irakaskuntzarako xedaturiko eta erabilitako eremua berariaz egokitu zuten gure bisitarako.

Gainera, ohartu ginen obrako hauts asko pila-tuta zegoela, izugarrizko tenperatura-aldeak zeudela eraikinaren barrenean, patioko euste-ezpondetan metaturiko lurra arrisku handia sortzen zuela, berokuntza-plakak, premiazkoak, instalatu gabe zeudela, joko-esparru egokirik ez zegoela, eta abar.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala konpon ditzan ikasturte honetarako atondutako lehen fasean dauden arazoak, ikastetxeko bizikidetzan partaide diren pertsonen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabete-ko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabete-ko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa

aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak:

Urriaren 25eko Osoko Bilkuran, jabeldura bat eztabaidatu zen, jakiteko zer neurri hartu behar zituen Nafarroako Gobernuak toki mapa arrazionalizatzeko aldera, finantza-nahikotasuna emateko eta toki-autonomian sakontzeko egungo, esumen-banaketa berrikusiz.

Eztabaida hartan, eta ñabardurak ñabardura, parlamentu-talde guztiak bat etorri ginen onartzean beharrezkoa zela lasai eztabaidatzea, elektoralismorik gabe eta denen artean, gure toki sektorea bultzatzeko neurririk egokienak hartze aldera.

Horiek horrela, eta prozesu hori bultzatze aldera, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabete-ko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroari ezarritako eginkizunari buruzkoa.***ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroari ezarritako eginkizunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua-ren babesean, ahoz erantzuteko gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Legebiltzarrean azaroaren 8an eta 9an egitekoa den Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin. Galderaren xedea da

jakitea zer asmo dituen Nafarroako Gobernuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroa dela-eta.

Zioen azalpena

Joan den urriaren 26an, ostiralez, Nafarroako Gobernuko ordezkari ugari bertan zirela, Uharteko Arte Garaikideko Zentro berria inauguratu zen. Inaugurazio ekitaldian Gobernuko lehendakariak laudorio-hitzak egin zituen arren, eta litekeena den arren 2008rako Nafarroako aurrekontuen proiektuan kontusailen bat egotea zentro horrekin etorkizunean hitzarmen bat egiteko, Nafarroako Gobernuko kiderik ez da egonen patronatuan, patronatuaren beraren iturriek adierazi dutenez.

Hori guztia ikusita, eta kontuan hartuta arte garaikidearen sustapenean egungo gobernuak egin duen politika alderraia, honakoa jakin nahi da:

Galderaren testua

Zer eginkizun ezarri dio Nafarroako Gobernuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroari arte garaikidea sustatzeko politika orokorraren barruan?

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruña eta Luzaide arteko errepidea bikoizteko proiektua garatzeko, denboraren ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomikotik, dauzkan aurreikuspeni buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Iruña eta Luzaide arteko errepidea bikoizteko proiektua garatzeko, denboraren ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomikotik, dauzkan aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

gaurkotasuneko ondoko galdera, ahozkoa, aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Pirinio Atlantikoetako Departamentuko lehendakariak adierazi du behar diren baldintza finantzarioak ez direla betetzen Luzaidetik iragan behar duen Iruña eta Biarnoko Saliesen arteko hiru erreiko Pirinioez gaindiko errepidea Frantziako aldean egiten hasteko. Adierazpen horien ondoren, Nafarroako Pirinioko ibarretako bide-azpiegituren hobetzea beste behin geratzeko arriskua egon daiteke.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Denboraren ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomikotik, zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak Iruña eta Luzaide arteko errepidea bikoizteko proiekturako, behin Frantziako Estatuko Pirinio Atlantikoetako Departamentuko lehendakariak iragarri ondoren Frantziako aldean obrak geratuko dituztela finantzaketarik ez egoteagatik?

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioari buruzkoa.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, azaroa-

ren 8rako eta 9rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaun txit garaiak erantzun dezan:

Gaia: Hitzarmen Ekonomikoa.

Zergatik Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko negoziazioan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ez dituzte ekimenok gauzatu?

1.- EAEko batzorde negoziatzailearekin batera jardun, erkidego biek interesa duteneko eta kon-

ponbiderik gabe gelditu diren gaietan sinergiak aprobetxatze aldera.

2.- Kupoaren ordainketa mugatu, Nafarroak duen biztanle kopurua erreferentzia hartuta karga bihurtu baita, eta bere jasagarritasunak hausnarketa eskatzen baitu.

3.- Hitzarmenaren negoziaketa aprobetxatu, egiteko dauden transferentziak bizkortzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b>  <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urtebete ..... 45,15 euro  Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »  Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »</p>	<p><b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b>  <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>  «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»  Navas de Tolosa, 1  31002 IRUÑA</p>
--	--